

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

4426

AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2022ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2008ko abenduaren 31koa, 250. zk.) VII. titulua ordezkari eta elkarte-antolaketari buruzkoa da. Horrela, honako hau dio 85. artikulua: «EAEko administrazioek harremana eta zerbitzua eman behar diete laborantzan, abeltzaintzan eta basogintzan (hots, orokorrean nekazaritza eta elikagaigintzan) jarduten diren pertsoneri, fisiko nahiz juridiko izan». Beraz, arloarekin zerikusia duten elkarteak eratzea eta haiei eustea bultzatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaigintzako politikak diseinatzeko erakunde solaskide garrantzitsuen izaera ematen zaie, eta, horretarako, euskal administrazioek beharrezko baldintzak sortuko dituzte elkarte horiek nekazaritza eta elikagaigintzako azpisektoreen interesen ordezkari izan daitezen. Asoziazionismoaren barruan, 87. artikulua egiten duen bezala, nekazaritzako erakunde profesionalak nabarmendu behar dira. Nekazaritzako erakunde profesionaltat hartzen dira estatutuetan, oro har, nekazaritzarekin zerikusia duten lanak egiten dituzten pertsonen interes sozioekonomikoak ordezkatzeko eta defendatzeko eginkizuna duten nekazaritza-elkarteak, eta gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita daudenak. Bete behar dituzte, gainera, 87. artikuluan bertan aipatzen diren betebeharrak. Elkarteak eta batez ere nekazarien elkarte profesionalak solaskide eraginkorrak dira, eta haien bidez bideratzen dira ordenamendu juridikoan jasotako kontsultak.

Lehen sektorearen egituratze sozial eta profesionaleko tresna gisa jarduten dutenez, nekazarien elkarte profesionalak zenbait gastu ordaindu behar dituzte eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez, elkarlanean jarduten du sindikatu-jarduerak etengabe hobetzen jarraitzeko. Hori da, hain zuzen ere, agindu honen xedea: Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako laguntzetarako deialdia egitea 2022ko ekitaldirako, hain justu ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekiko interlokuzio sozialeko funtzioak gauzatzeko, betiere euskal nekazaritza sektorearen gaien arloan, eta, oro har, nekazaritza sektorearentzako aholkularitzako jarduera sindikalei eusteko, eta, halaber, afiliatuei dagokienez. Sustapen-lan hori ez da berria, 2003ko ekitaldiaz geroztik aplikatzen ari den dirulaguntzen arloko programa bat da eta.

Dirulaguntza horiek honako hauetan araututa daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006; eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua.

Halaber, agindu honen bidez iragarritako laguntzak jasota daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan estrategiko hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren 2021, 2022 eta 2023rako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzekoa), eta Eusko Jaurlaritzaren

«www.euskadi.eus» webgunean argitaratuta dago, sailari buruzko eremuan, «Planak eta proiektuak» atalean.

Programa honen finantzaketa 2022ko ekitaldiari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean aurreikusita-koaren arabera. Deialdi honetarako laguntzen zenbatekoa 241.000 eurokoa izango da.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea eta ezaugarriak.

1.– Agindu honen xedea da, 2022ko ekitaldiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako laguntzetarako deialdia egitea, hain justu ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekiko interlokuzio sozialeko funtzioak gauzatzeko, betiere euskal nekazaritza sektorearen gaien arloan, eta, oro har, nekazaritza sektorearentzako aholkularitzako jarduera sindikalei eusteko, eta, halaber, afiliatuei dagokienez.

2.– Agindu honen babespean ematen diren laguntzak ez dira itzuli beharrekoak izango.

Bigarrena.– Onuradunak.

Honako hauek izan ahalko dira sindikatu izaerako nekazaritzako erakunde profesional onuradunak: Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 87. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen badituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza sektorearen interes orokorrak ordezkatzeko eta defendatzeko xedetzat duten eta nekazaritzako profesionalez osaturik dauden erakundeak, diharduten nekazaritzaren ekoizpen-azpisektorearengatik inolako bereizketarik egin gabe; horrez gain, seigarren ebazpen-zatiko betekizunak ere bete beharko dituzte.

Hirugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Elkarrizketa sozialeko jarduketak diruz lagundu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektoreari buruzko gaietan, eta nekazaritza-sektoreari eta, zehazki, afiliatuei orientazioa eta aholkularitza emateko gaietan, betiere agindu honetan xedatutako baldintza subjektiboak, objektiboak eta aldi baterakoak betetzen badituzte. Jarduketa horiek 2022ko ekitaldian zehar gauzatu beharko dira.

Laugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzekoan sortzen diren gastuak joko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat, hala nola:

- a) Jarduera sindikaletan erabiltzen diren lokalak egokiro mantentzea.
- b) Jarduera sindikaletan diharduten langileak edukitzeko egiten dituzten lan-kontratuei eustea.
- c) Nekazaritza-sektoreko profesionalei aholkularitza eta informazio sindikala emango dieten langileen lan-kontratu berriak egitea.
- d) Gastu arruntak, ez inbertsiokoak.

Edonola ere, gastu horiek diruz lagundu ahal izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

2.– Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, gutxienez hiru eskaintza –zenbait hornitzailerenak– eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago aski erakunde haiek egin, eman edo entregatzeko, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

3.– Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak azpikontratatu ahal izango ditu, gehie-
nez ere % 50eko ehunekoan. Horretarako, honako hauetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan.

Bosgarrena.– Finantzaketa.

Agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoek Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean zehaztutako kredituetan izango dute jatorria, eta baliabide horiek 241.000 eurokoak izango dira.

Onuradunei emandako funtsetatik sortzen diren finantza-etekinek handitu egingo dute emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, eta diruz lagundutako jarduerari aplikatuko zaizkio.

Seigarrena.– Erakunde onuradun izateko betekizunak.

1.– Laguntza-eskatzailiek baldintza hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea, legez eratuak izatea eta Elkarleen Erregistroan inskribaturik egotea.

b) Beteta edukiko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak. Dirulaguntzen itzuleragatiko betebeharrak ordainduta edukitzea, indarrean dauden arauetan ezarritako baldintzetan. Betekizun hauek beharrezkoak izango dira onuradun izateko eta laguntza emateko eta ordaintzeko orduan.

c) Eskatzailiek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez.

d) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoari jarraikiz.

e) Zuzendaritza-organoetan emakumeak izatea, gutxienez modu orekatuan, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen 19. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan adierazitakoa aplikatuz. Bigarren paragrafo horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eskudunek ez diete laguntzarik ez dirulaguntzarik emango nekazari-

tzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin eta zuzendaritza-organoetan emakumerik ez badute.

2.– Era berean, deialdi honen xede den dirulaguntza eskuratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

– Erakunde eskatzailea ez egotea honako hauetan jasotako debekuetan: Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2. eta 13.3 artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua– 50. artikulua.

– Erakunde eskatzaileak Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 87. artikuluan nekazarien erakunde profesionaleri ezartzen zaizkien baldintzak betetzea, hau da:

- Haien estatutuetan, oro har, nekazaritzan diharduten pertsonen interes sozioekonomikoak ordezkatzeko eta defendatzeko eginkizuna jasotzea, eta gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita egotea.

- Nekazaritzako azpisektore batean edo batzuetan benetan ezarrita egotea.

- Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita egotea gaur egun, eta gutxienez, laguntza eskatu aurreko bi urteetatik hona, etengabe.

- Bulego irekiak eta giza baliabide nahikoa edukitzea, nekazariei behar bezalako laguntza emateko moduan, edo, kasuan kasu, erakunde kideuei laguntza emateko moduan.

- Irabazi-asmorik ez izatea.

Zazpigarrena.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Laguntza-eskaerak (I. eranskin gisa erantsi da eredia) Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari bideratuko zaizkio, eta elektronikoki aurkeztuko dira.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira. Horretarako, euskadi.eus egoitza elektronikoa sartu beharko da, ebazpen-zati honetako hurrengo apartatuan adierazitako helbideen bitartez.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidezteko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri:

Euskara: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1029008

Eskabidea egin osteko izapideak, bide elektronikoz, hauen bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> eta <https://www.euskadi.eus/micarpeta>.

4.– Laguntza-eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eraketa-akta eta dagokion administrazio-organoak ikus-onetsitako estatutuak. Baldintza hori ez dute bete beharko agindu honen kontura laguntza jaso duten nekazarien erakunde profesionalak: «Agindua, 2021eko uztailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2021eko ekitaldirako

laguntzetarako», estatutuetan egindako aldaketen kasuan salbu (halakoetan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari eman beharko zaio haien berri).

b) Ekitaldian zehar egingo diren ekintzak justifikatzeko memoria, ondoko ekintzak adieraziz eta kuantifikatuaz:

- 1) Jarduera sindikalen koordinazioa.
- 2) Sektoreko elkarteekiko eta administrazioekiko lankidetzak.
- 3) Administrazioarekin zerikusia duten prozeduretan, nekazaritza-lanak egiten dituztenekiko lankidetzak, aholkularitza, laguntza eta kudeaketa.
- 4) Prestakuntza-, informazio- eta dinamizazio-jardueren antolakuntza.
- 5) Nekazaritzako politiken segimendua eta zabalkundea.
- 6) Euren interesak defenditu eta sustatzeko, afiliatuei emandako zerbitzuak.

c) Erakunde bakoitzaren afiliatu-kopurua, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Araubide Berezian daudenen kopurua ere zehaztuta; hori egiaztatzeko, erakunde bakoitzeko idazkaritzak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

d) Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko aukeretan parte hartzeko erabakiaren, zehazki, erakundeak hartutakoaren ziurtagiria.

e) Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko deklarazioa, honako hauek jasota:

- 1) Beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk eskatu eta, hala badagokio, lortu izana, dagozkion zenbatekoei eta erakunde-emaleei buruzko informazio zehatza eskainiz.
- 2) Dirulaguntzak itzultzeko prozedura edo zehapen-prozeduretan sartuta ez egotea. Eta, EAEko Administrazio Orokorrak, bere erakunde autonomoek eta sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi bada prozedura, oraindik izapidetan egotea.
- 3) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.
- 4) Ez izatea zehapen administratiborik edo penalik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen duena.
- 5) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legezko galarazpenen batean ez izatea.

f) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan ezarritako gainerako baldintzak artikuluko horren 4., 5., 6. eta 7. apartatuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

5.– Automatikoki, berariazko baimenik gabe, egiaztatuko du organo kudeatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hala ere, pertsona edo enpresa eskatzaileak modu arrazoituan aurka egin ahal izango du, eta, hala egiten badu, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, eskabidearen bidez baimena emango zaio organo kudeatzaileari egiaztatu dezan inskripzioa indarrean dagoela Elkarteen Erregistroan.

6.– Erakunde eskatzaileek ez dute aurkeztu beharrik izango aurrez edozein administrazio aurkeztutako dokumenturik, berariaz adierazten badute dokumentu horietan ez dela izan aldaketarik. Ondorio horietarako, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen aipatutako dokumentuak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 28. artikuluko hirugarren apartatuan xedatutako ondorioetarako.

7.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita. Eskabideak ez baditu betetzen eskatutako betekizun guztiak, erakunde interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo behar diren agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

8.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Halaber, laguntza-eskaeratik eratorritako jarduketetan eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileek aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabileraren Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

9.– Aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio erakunde eskatzaileari.

Zortzigarrena.– Laguntzen kudeaketa.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari dagozkio, baita diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena egitea ere. Horrela, egoki iritzitako ikuskapenak egin ahal izango ditu zuzendaritzak, dirulaguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzaten direla ziurtatzeko; horretarako, onuradunak eskatzen zaizkien agiriak eta informazioa aurkeztera behartuta daude.

Bederatzigarrena.– Laguntzak esleitzea eta haien zenbatekoa kalkulatzeko.

Agindu honetan jasotako baldintzak betetzen dituzten erakundeak izango dira laguntzen onuradun. Onuradun gertatzen den erakunde profesional bakoitzak jasoko duen zenbateko osoa ezin izango da justifikatutako gastuak baino handiagoa izan, eta honako prozedura honen arabera zehaztuko da:

a) Lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022ko ekitaldiko aurrekontu orokorrean xede horretarako erreserbatuta dagoen zenbatekoa Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatuko da, parte berdinetan, eta ateratzen den zenbatekoa izango da lurralde historiko bakoitzean diharduten erakunde profesional guztiek batera jasoko duten gehieneko zenbatekoa.

b) Lurralde Historiko bakoitzari egotzitako zenbatekoa honelaxe banatuko da:

– Heren bat uniformeki banatuko da, lurralde historikoan diharduten erakunde profesionalen artean.

– Beste heren bat proportzionalki banatuko da erakunde profesionalen artean; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezia izena emanda dauden afiliatu-kopurua-
ren arabera, zazpigarren ebazpen-zatiko 4.c) paragrafoan ezarritakoarekin bat.

– Gainerako herena proportzionalki banatuko da, justifikatzeko memorian aipatutako jardueren
arabera eta jarduera horien zenbatekoa kontuan harturik.

Hamargarrena.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen bidez emango dira dirulaguntzak,
eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrerako sei hilabeteko epean.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

1) Erakunde onuradunen izenak.

2) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.

3) Diruz lagundutako zenbatekoa.

4) Aurreikusitako jarduerak egiteko epea.

5) Zehapen-prozeduraren batean edo itzultze-prozeduraren batean egonez gero, hura amaitu
egin beharko da, emateko ebazpena eta, hala badagokio, ordaintzekoa onartzeko. Prozedu-
rak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaiak badakar, edo laguntza itzultzeko
betebeharra ezartzen badu, baldintzapean emandako laguntza baliogabetu egingo da, onura-
dun izateko debekua ezartzen duen egoera batean egoteagatik.

b) Onartu ez diren eskabideei dagokienez:

1) Pertsona edo erakunde eskatzaileen izena.

2) Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek
ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Adminis-
trazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Laguntza emateko edo ukatzeko ematen duen ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtoa
aurkeztu ahal izango dio interesdunak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailbu-
ruordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera, edo, edozein
unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administra-
zio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan
xedatutakoarekin bat.

5.– Laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Nekazaritza eta Abel-
tzaintzako zuzendariaren ebazpen bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da
agindu honen itzalpean laguntza jasoko duten elkarten zerrenda, laguntzaren zenbatekoa zehaz-
tuta duela, hura jendaurrean jartze aldera.

6.– Agindu honetan jasotako laguntzak onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa
izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek
emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen eremuan hasitako edozein itzulketak- edo
zehapen-prozedura amaituta egotea.

Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaiakuntza badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharrak ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik.

Hamaikagarrena.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek beti bete beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua– 50. artikuluan ezarritako betebeharrak, eta honako betebeharrak ere bai:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntzaren onuradunak ez badio berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunetan, onartu egiten duela ulertuko da.

2.– Eskatutako informazio guztia ematea Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eginkizunetan.

3.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo erakunde publiko edo pribaturen bati helburu bererako, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, eman egin dizkietela ere jakinarazi behar diote, idatzi baten bidez. Aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko da jakinarazpen hori, eta, edozein kasutan, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

4.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, horren berri ematea idatzi bidez Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari. Aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin beharko da jakinarazpen hori, eta, edozein kasutan, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

5.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

6.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean mantentzea. Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betebeharrak hori betetzen dela, onuradunen aldetik berariazko baimenik behar izan gabe; berariaz uko egiten zaionean salbu, kasu horretan, egiaztatu egin beharko baitu mutur hori.

Hori guztia 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz (1/1997 Legegintza Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

7.– Proiektua zabaltzeko egiten diren agirietan eta publizitatean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babesa dutela aipatu beharko dute. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburuan xedatutakoarekin bat etorritik sartuko da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/identitate-korporatiboa/>).

Hamabigarrena.– Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa.

1.– Gastua justifikatu ondoren ordainduko da emandako dirulaguntza. Gastua justifikatzeko, azaroaren 17ko 30/2003 Legearen 38. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, eta honako dokumentazio hau aurkeztu:

a) Diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatu bat.

b) Merkataritza-zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko apartatuan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta erakunde finantzarioak egindako ordainketaren ziurtagiria (egindako ordainketaren banku-ziurtagiria, aurkeztutako ordainagiriekin bat datorrena).

c) Beste administrazio edo erakunde publiko batzuek, edo izaera pribatuko pertsonak –fisikoez zein juridikoez– emandako laguntzen ziurtagiria eta xede bererako emandako laguntzena.

2.– Kudeaketa egokia eta artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik edo jarduerak bukatzen diren egunetik hasita, egun hori geroagokoa bada. Nolanahi ere, justifikazioa 2023ko urtarrilaren 14a baino lehenago egin beharko da.

3.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren titularrak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu beharrezkoa baderitzo, betiere arrazoiak emanda.

4.– Onuradunei dirulaguntza hauek ordaintzeko, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomoen antzeko dirulaguntzak edo laguntzak direla-eta bideratzen hasitako itzulera- edo zigor-prozedurak amaituta edukitzea.

5.– Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2022an egiten ez badira, edo ezarritako epean hori egiaztatzeko agiriak aurkezten ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

6.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzaren dagokion datu-basean jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesduneko zure datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Hamahirugarrena.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, hori justifikatu eta jakinarazi beharko zaio, idatziz, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari, egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun baliadunen barruan, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen. Horretarako, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak dagokion ebazpena aldatzeko ebazpena emango du, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berrira egokitzeko, eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak arautzen duen itzulketa-prozedura hasiko du.

2.– Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, jarduerak ez badira gauzatzen, jarduerak aldatu edo birprogramatzen badira baina proiektua ez bada funtsean aldatzen eta, betiere, agindu honetako gutxienezko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, baina dirulaguntza emateko ebazpena ez da aldatuko.

Aitzitik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, jarduerak gauzatzen ez badira, jarduerak aldatu edo birprogramatzen badira eta, horren guztiaren ondorioz, proiektua funtsean aldatzen bada baina laguntza helburu bererako erabiltzen bada, hori Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari idatziz jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, eta dirulaguntza

emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak.

Honako hauek hartuko dira aldaketa funtsezkotzat:

- 1) Aldaketa esanguratsuak egitea edo eskaeran hasieran ezarritako helbururen bat ezabatzea.
- 2) Aurreikusitako jarduketaren exekuzio-epea.
- 3) Eskaeran aurreikusitako jarduketaren bat bertan behera uztea, laguntza jarduera jakin horretarako eman bada.
- 4) Gastu-kontzeptuak aldatzea, hasieran onartutako gastuez gain beste batzuk ere sartuz.
- 5) Sindikatu-jarduerak modu egokian garatzeko beharrezkoak diren ekipamenduko ondasunak eta bitarteko teknikoak erabiltzeko epea bi urtetik behera murriztea, horiek dirulaguntza emateko xederako erabiltzen direnean.
- 6) Onuradunaren nortasun juridikoa aldatzea, horrela, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 87. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ez baditu.

Aldaketak direla-eta ez da inoiz emandako laguntza handituko.

Aldaketak ez badira funtsezkoak, ez dute biderik emango laguntza ematea xedatzen den ebazpena aldatzeko.

3.– Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

Hamalagarrena.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatzen duen erakundeak atzera egin ahal izango du bere eskabidean. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera-egitea jasota uztea ahalbidetzen duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin dagozkion sinadurak baditu, betiere. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak, ebazpen baten bidez, guztiz onartuko du atzera-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du erakunde horri dagokionez.

2.– Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio erakunde onuradunak. Laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin, betiere. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak, ebazpen baten bidez, berriaz onartuko du uko-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du erakunde horri dagokionez.

Hamabosgarrena.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu proiektua zati batean betetzen (eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun

Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikularekin eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikularekin bat etorriz, laguntza eman zuen organo eskudunak, itzulketa-espedientea izapidetu ondoren (erakunde interesduna entzunda), ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (partzialki edo erabat) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalan) eta dagozkion legezko interesak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzkoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikularekin bat etorriz, hartara eragotzi gabe beste neurri batzuk hartzea. Aipatutako diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzultze-prozedura, organo eskudunari jakinarazi behar zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

Hamaseigarrena.– Bateragarritasunak.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein Administrazio publiko, sail, organismo edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako laguntzekin, betiere laguntzen pilaketak jardueraren kostuaren ehuneko ehun gainditzen ez badu eta gainfinantzaketa eragiten ez badu.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez diezaiokete interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 5a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2022ko urriaren 14a, ostirala

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IZAERA SINDIKALA DUTEN NEKAZARITZAKO ERAKUNDE
PROFESIONALENTZAKO LAGUNTZETARAKO INPRIMAKIA

2022ko urriaren 5eko Agindua (2022-10-14ko EHAA, 197. zk.)

ERREGISTROKO SARRERA-DATA

Izen-abizenak: NAN

zenbakia:

Hau ordezkutzen du:

ERAKUNDEA:

.....

IFZ/IFK:

.....

Kalea

eta

zenbakia:

Telefona:..... Faxe:..... Helbide
elektronikoa:.....

Udalerria:.....

(Lurraldea)..... Posta-kodea:.....

Harremanetarako pertsona:.....

Tel.:.....

Eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten nekazaritzako erakunde profesionalentzako 2022ko ekitaldirako laguntzak jasotzea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko urriaren 5eko Aginduaren bidez laguntza horien deialdia egin baita.

Horretarako, agindu horren zazpigarren ebazpen-zatian adierazitako dokumentazioa erantsi dut.

- BAIMENA EMATEN DUT** laguntza hauen organo kudeatzaileak behar bezala egiazta dezan elkarteak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta elkartearen erregistroan inskribatuta dagoela.
- EZ DUT BAIMENIK EMATEN** laguntza hauen organo kudeatzaileak behar bezala egiazta dezan elkarteak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta elkartearen erregistroan inskribatuta dagoela, beraz, behar diren ziurtagiriak aurkeztuko ditut

LEGEZKO ORDEZKARIAREN SINADURA

--

ADIERAZTEN DU:

- 1.– Beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk eskatu / ez eskatu izana edo, kasu bada, jaso izana.
- 2.– Ez egotea sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek eta sektore publikoko beste erakunde batzuek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den ezein itzultze-edo zehapen-prozeduratan.
- 3.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea, indarrean dauden arauetan ezarritako baldintzetan. Betekizun hauek beharrezkoak izango dira onuradun izateko eta hala izaten jarraitzeko.
- 4.– Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik ez izatea, ezta laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.
- 5.– Laguntza hauen onuradun izateko ezarrita dauden betekizunak betetzea, horren ziurtagiriak izatea –horiek Administrazioaren esku jarri beharko ditu hark eskatutakoan– eta eskubidea aitortzen zaion aldi edo ekitaldi guztian zehar aurreko betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzea.
- 6.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako gainerako baldintzak artikuluko horren 4., 5., 6. eta 7. apartatuetan ezarritakoaren arabera egiaztatzea.
- 7.– Zuzendaritza-organoetan emakumeak egotea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legearen 19. artikulua aplikatuz:
 - a) Emakumeak daude:
 - b) Zuzendaritza-organoa osatzen duten pertsonen kopurua:
 - c) Emakumeen kopurua:
- 8.– Eskabide honetan eta erantsitako agirietan jasotzen diren datuak egiazkoak izatea.

**EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA ZUZENDARITZA**

Datuak babesteari buruzko informazioa:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua betez (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena), jakinarazten da datu pertsonalak tratatu, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko direla: «Nekazaritza eta abeltzaintzako laguntzak».

Tratamenduaren arduraduna:

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefonoa: 945018000.

Web-orria: <https://euskadi.eus>

Datuak babesteko ordezkaria.

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba.

Telefonoa: 945 018 680.

Web-orria: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/datuak-babesteko-ordezkaria/hasiera>

Helburua:

Nekazaritza eta abeltzaintzako laguntzak kudeatzea.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

Datuak gordetzeko epea:

10 urte.

Hartzaileak:

- Foru Aldundiak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Datuen babesaren arloko eskubideak:

a) Datuetara sartzea.

Tratamenduaren arduradunak interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez berresteko eskubidea da, eta, tratatzen ari badira, datu horiek eskuratzeko eskubidea.

b) Datuak zuzentzea.

Bere datu pertsonal akastunak zuzentzeko eskubidea dauka interesdunak, eta osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzekoa, behar bada, adierazpen gehigarri baten bidez.

c) Datuak ezabatzea. Ahaztua izateko eskubidea.

Interesdunak duen eskubidea, berari dagozkion datu pertsonalak ezabatzea lortzeko, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

- Datu pertsonalak jada beharrezkoak ez badira bildu edo tratatu ziren xedeetarako.
- Interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena kentzen badu, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik.
- Interesdunak tratamenduari aurka egiten badio, eta datuak tratatzeko legezko beste arrazoirik ez badago horren gainera.
- Datu pertsonalak legez kontra tratatu badira.
- Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu-kideetako zuzenbidean ezarritako lege-eginbehar bat betetzeko.
- Datu pertsonalak jaso badira 8. artikulua lehengo apartatua aipaturiko informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian. (adingabeen datuen tratamenduari aplikagarriak zaizkion baldintzak, informazioaren gizarteko zerbitzuak direla eta).

– Datu pertsonaletarako esteka oro ezabatua izateko eskubidea izango du interesdunak, baldin eta datuok ezerezteko betebeharra badago (ahaztua izateko eskubidea).

d) Datuen tratamendua mugatzea.

Bere datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea izango du interesdunak baldintza hauetan:

– Datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egiten denean, tratamenduaren ardura duen organoak datuon zehaztasuna egiaztatzeko adinako epe batez.

– Tratamendua legez kontrakoa denean eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egiten duenean eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu.

– Tratamenduaren arduradunak jadanik behar ez dituen datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

– Interesdunak tratamenduaren aurka egin duenean, eta tratamenduaren arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoi ginetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.

e) Datuen tratamenduaren aurka egitea.

Interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabili edo hirugarrenen interes legitimoa babesteko, baita profilak egiteko ere.

– Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen ginetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

– Datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Tratamendu automatizatu.

Eskubide honen bidez bermatu nahi da interesduna ez izatea tratamendu automatizatu batean soilik oinarrituta dagoen eta harengan ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituen erabaki baten jomuga, profilak egitea barne.

Eskubideak baliatzea.

Eskubide horiek tratamenduaren arduradunaren aurrean baliatzeko aukera daukazu, datuen babesaren arloko «eskubideak baliatzeko» prozeduraren bidez: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/

Era berean, eskumena duzu edozein erreklamazio egiteko Datuak Babesteko Euskal Agentziari, edo, bestela, aurretiazko erreklamazioa aurkez dezakezu datuak babesteko ordezkariaren aurrean: www.euskadi.eus/zerbitzuak/10843/

Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehatua.

– EAEko datuak babesteko ordezkariaren web-orria:

(www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/datuak-babesteko-ordezkaria/hasiera)

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

(<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

ID: 1130.